

UDAL ADMINISTRAZIOA

7

ADMINISTRACIÓN MUNICIPAL

DONOSTIAKO UDALA

Biohondakinen prebentzioari buruzko ordenantzaren behin betiko onespena.

Donostiako Udalbatzak, 2014ko irailaren 25ean egindako osoko bilkuran, ondorengoaren berri jaso du:

Udalbatzari.

Udalbatzak, 2014ko ekainaren 26ko bilkuran, Biohondakinen prebentzioari buruzko Ordenantzari hasierako onespena ematea erabaki zuen.

Hasierako onespen horren iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen 2014ko uztailaren 7an, eta, hala, jendaurrean jartzeko eta entzuteko aldia hasi zen, 30 lanegunetarako.

Jendaurreko epea bukatuta, ez da iradokizunik edo alegaziorik aurkeztu. Ondorioz, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 49. artikuluko azken paragrafoan ezarrita dagoenez, ordu arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko onartutzat jo behar da eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN testua publikatuko da.

Horiek horrela, Udalbatzari jakinarazten zaio, Donostiako Udalbatzaren Organo Araudiko 113. artikuluan xedatutakoa jarraituz, ordenantzaren behin betiko onarpena».

Ados ez dagoenak bi hilabete du errekurtsioa jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean.

Esandako epea argitalpen honen hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

Legea 7/1985, apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzeko 70.2 artikuluan agintzen duena betez, bestetik, behin-betiko onartutako akordioa eta araua argitara ematera goaz.

Donostia, 2014ko irailaren 29a.—Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, Udalbatzaren idazkari nagusia. (8718)

Bio-hondakinik ez sortzeko udal ordenantza erregulazionala.

ZIOEN AZALPENA

Donostiako Udalaren lehentasunetako bat da hondakinen sorrera saihestea eta horien kudeaketa hobetzea, eta lehentasun hori islatuta dago Tokiko Agenda 21en ekintza planetan, baita Aldaketa Klimatikoaren Aurkako Planean eta Energia Iraunkorrerako Ekintza Planean ere. Plan horietan guztietan, prebentziorako neurriak eta hondakinak hobeto kudeatzeko neurriak daude ezarrita, horiei balio materiala eransteko, baliabide diren aldetik.

Aurreikusitako neurrietako bat da etxeko materia organiko biodegradagarriaren etxeko konpostajea eta konpostaje komunitarioa ezartzea. Ekimen horiek hondakinak ez sortzeko sistemak dira, bilketa sistematik baztertzeko baitute materia hori, eta, hortaz, bereziki garrantzitsuak dira hondakinen kudeaketaren

AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

Aprobación definitiva de la ordenanza para la prevención del biorresiduo.

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 25 de setiembre de 2014, quedó enterada de lo siguiente:

Al Excelentísimo ayuntamiento Pleno.

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 26 de junio de 2014, aprobó inicialmente la Ordenanza para la prevención del Biorresiduo.

El 7 de julio de 2014 se insertó en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa anuncio de la citada aprobación inicial, abriéndose el plazo de exposición pública por plazo de treinta días hábiles.

Dentro de dicho plazo no consta que se haya presentado sugerencia ni reclamación alguna, por lo que, de conformidad con lo dispuesto en último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases del Régimen Local, puede entenderse definitivamente adoptado el acuerdo de aprobación inicial y procede, por tanto, la publicación del texto íntegro en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Por lo expuesto, de conformidad con el artículo 113 del Reglamento Orgánico de Pleno, se da cuenta al Excmo. Ayuntamiento Pleno de la aprobación definitiva de la Ordenanza».

Este acuerdo pone fin a la vía administrativa y podrá ser impugnado directamente ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses.

Este plazo se computará desde el día siguiente al de la publicación de este anuncio.

De conformidad con lo dispuesto en el art. 70.2 de la citada Ley 7/1985, a continuación se procede a la publicación del acuerdo y de la norma aprobada.

San Sebastián, a 29 de setiembre de 2014.—El secretario general del Pleno, Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga. (8718)

Ordenanza municipal reguladora para la prevención del biorresiduo.

EXPOSICION DE MOTIVOS

El Ayuntamiento de San Sebastián tiene entre sus prioridades la prevención en materia de generación de residuos y la mejora de su gestión, hecho que se refleja en los Planes de Acción de la Agenda Local 21, así como en el Plan de Lucha Contra el Cambio Climático y en el Plan de Acción de Energía Sostenible. En todos estos planes se establecen medidas para la prevención y también para la mejora de la gestión de los residuos tratando de maximizar su valorización material, en su condición de recursos.

Entre las medidas previstas se encuentra la implantación del compostaje doméstico y el compostaje comunitario de la materia orgánica biodegradable de origen domiciliario. Estas iniciativas se consideran sistemas de prevención de residuos, ya que se detrae residuo que de otra forma terminaría en el sis-

hierarkizazioan. Sistema horiek, gainera, bio-hondakinak bide publikoan ipinitako edukiontzien bidez (edukiontzi marroia) biltzeko zerbitzu publikoen osagarriak dira, eta horiekin bateragarriak.

Etxeko materia organiko biodegradagarriaz gain, Ordenantza honetan sartuta dago 22/2011 Legearen bio-hondakinaren definizioan jasota dauden jardueretan edo saltokietan sortutako materia organiko biodegradagarria (jatetxeetakoak, talde handientzako sukaldaritzakoak eta txikizkako salmenten saltokietakoak, baita elikagaiak prozesatzeko instalazioetatik datozen hondakin parekagarriak ere).

Hori dela eta, etxeko konpostajeak eta konpostaje komunitarioak onura hauek dakartzate:

– Materia organikoaren zikloa ixten da, hondakinari balioa ematen zaiolako baliabide gisa.

– Zikloa udalerrian bertan ixtean, ez da beharrezkoa bio-hondakinak tratamendu instalazioetara eramatea, eta horrek onurak dakartza, bai ingurumenaren arloan, bai arlo ekonomikoan.

– Sortutako konposta ongari gisa edo medeapen organiko gisa erabil daiteke, luraren emankortasuna, egitura eta funtzionaltasuna hobetzeko.

– Sistema horiek lagungarriak dira herritarrak oro har ingurumenari eta bereziki hondakinaren kudeaketa arduratsuari begira sentiberatzeko, prestatzeko eta erantzunkide bihurtzeko.

– Hondakinak kudeatzeko bide horiek onura kulturalak eta sozialak ekartzen dituzte, eta udalerriko beste ekimen batzuekin batera daitezke, erantzunkidetasuna sustatzeko eta ingurumenarekiko konpromiso handiagoa duten herritarrak lortzeko.

Etxeko materia organiko biodegradagarriaren konpostajearen garrantzia aintzat hartuta, Udalak konpostaje komunitarioko proiektu pilotu bat abiarazi zuen 2012an, udal lurretan konpostaje komunitarioa zenbait esparru prestatuta. Proiektu horretan, 16 familiak parte hartu dute, batez beste, konpostaje komunitarioko esparru bakoitzeko.

Probako fase hori ebaluatu ostean, komenigarritzat jo du pertsona orori, fisikoa edo juridikoa, aukera ematea nahi izanez gero materia organiko biodegradagarria konpostaje bidez kudeatzeko. Horretarako, beharrezkoa da bio-hondakinak ez sortzeko udal programa hau arautzea, programaren ezaugarriak eta parte hartzeko modua ezarrita eta norik parte har dezakeen eta zer eskubide eta betebeharrak izango dituen zehaztuta.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honen xedea da konpostaje bidez bio-hondakinak saihesteko udal programaren baldintzak arautzea.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

2.1. Ordenantza hau Donostiako udal barruti osoan aplikatuko da, eta edozein konpostaje modu erabiliz bio-hondakinak ez sortzeko udal programan beren borondatez parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridikoei bakarrik eragingo die.

2.2. Ordenantza hau ez zaio aplikatuko bio-hondakinak konpostajerako erabiltzeko edukiontzi marroietan egiten den bilteta bereziari. Bilteta hori Hondakinak Biltzeko Udal Ordenantzak arautzen du.

tema de recogida y, por lo tanto, tienen especial importancia en la jerarquización de la gestión de residuos. Estos sistemas son, asimismo, complementarios y compatibles con el servicio público de recogida de biorresiduos mediante contenedores ubicados en vía pública (contenedor marrón).

Además de la materia orgánica biodegradable de origen domiciliario, se incluye en esta Ordenanza la materia orgánica biodegradable generada en las actividades o comercios que se recogen en la definición de biorresiduo de la Ley 22/2011 (restaurantes, servicios de restauración colectiva y establecimientos de venta al por menor, así como, residuos comparables procedentes de plantas de procesamiento de alimentos).

Por ello, los sistemas de compostaje doméstico y comunitario presentan las siguientes ventajas:

– Se cierra el ciclo de la materia orgánica, al dar valor al residuo como recurso.

– Al cerrar el ciclo en el mismo municipio, no es necesario el transporte de estos biorresiduos a las plantas de tratamiento, con la ventaja ambiental y económica que esto conlleva.

– El compost producido puede ser utilizado como abono o enmienda orgánica para mejora de la fertilidad, estructura y funcionalidad de la tierra.

– Tiene un efecto adicional positivo en cuanto a la sensibilización, formación y corresponsabilidad de la ciudadanía con respecto al medio ambiente en general y a la gestión responsable de los residuos en particular.

– Estas formas de gestión de residuos aportan beneficios culturales y sociales y se pueden alinear con otras iniciativas del municipio fomentando la corresponsabilidad y logrando una ciudadanía más implicada con el medio ambiente.

Entendiendo la importancia del compostaje de la materia orgánica biodegradable doméstica, en el año 2012 este Ayuntamiento puso en marcha un proyecto piloto de compostaje comunitario en el que se habilitaron en terreno municipal varios recintos de compostaje comunitario; proyecto piloto en el que han venido participando como media 16 familias por recinto de compostaje comunitario.

Tras la evaluación de esta fase piloto se ha estimado conveniente ofrecer a toda persona, física o jurídica, que de forma voluntaria desee hacerlo, la oportunidad de gestionar su materia orgánica biodegradable mediante compostaje. Para ello, es necesario regular este programa municipal de prevención de los biorresiduos, estableciendo las características del mismo, la forma o modo de participación, las personas participantes y los derechos y obligaciones derivados de dicha participación.

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto.

Esta Ordenanza tiene por objeto regular las condiciones del programa municipal de prevención del biorresiduo mediante compostaje.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

2.1. Esta Ordenanza es de aplicación en todo el término municipal de San Sebastián y, exclusivamente, a las personas, físicas o jurídicas, que participen voluntariamente en el programa municipal de prevención del biorresiduo mediante cualquiera de las modalidades de compostaje.

2.2. Esta Ordenanza no será de aplicación a la recogida separada de biorresiduos para destinarlos al compostaje que se realiza a través del contenedor marrón, la cual se regula en la Ordenanza Municipal de Recogida de Residuos Urbanos.

3. artikulua. Definizioak.

Ordenantza honen eraginetarako, definizio hauek hartuko dira kontuan:

Etxe konpostaje edo norberaren konpostaje: etxe batean edo sukaldaritzako jarduera batean sortzen den materia organiko biodegradagarria konpostaje prozesu baten bidez kudeatzea.

Konpostaje komunitario: etxe edo sukaldaritzako jarduera batean baino gehiagotan sortzen den materia organiko biodegradagarria hainbat pertsonak espazio komun batean konpostaje prozesu baten bidez kudeatzea.

Bio-hondakin: lorategi eta parkeetako hondakin biodegradagarria; etxeetako, jatetxeetako, talde handientzako sukaldaritzaz erabiltzeko eta txikizkako saltokietako elikagai hondakinak eta sukaldeko hondakinak, eta elikagaiak prozesatzeko instalazioetako pareko hondakinak.

Egituratzailerik: bio-hondakin lehorra, parkeetan eta lorategietan lortu ohi dena (inausketako adarrak, hosto lehorrak, lastoa eta landare hondarrak), prozesuari karbonoa ekartzeko eta hezetasuna murrizteko erabiltzen direnak.

Hondakin: jabeak baztertzen duen edo baztertzeko asmoa edo betebeharra duen zeinahi substantzia edo objektu.

Konpost: Bereizita jasotako materia organiko biodegradagarriaren tratamendu biologiko aerobio eta termofilotik lortutako ongarri organikoa. Ez da konposta izango hondakin nahasien tratamendu mekaniko biologikoko instalazioetan lortutako material organikoa. Horri material bioegonkortua izango da.

Konpostagailu: konpostaje prozesua egiteko erabiltzen den ontzia. Zoruduna izan daiteke —bereziki aproposa terraza eta lur gogorretarako—, nahiz zorugabea —lorategietan zuzenean lur gainean jartzeko egokiagoa—.

Konpostaje: prozesu biologiko aerobio eta termofiloa, konposta lortzeko materia organiko biodegradagarria modu kontrolatua deskonposatuta. Prozesuak fase hauek ditu:

— Deskonposizio fasea: fase honen ezaugarria mikrobio jardun bizia da. Onddoek eta bakteriek pilatutako materiala eraldatzen dute, tenperatura oso altuak lortuta (70.°C-ra artekoak).

— Umotze fasea: mikroorganismoek materia organikoa deskonposatu ostean, intsektuek (kakalardoa, zizarea) egonkortu egiten dute, eta txikitu.

Arduradun: konpostaje komunitarioko esparru bakoitzean konpostaje prozesuari jarraipena egiteaz arduratuko den pertsona.

II. KAPITULUA

BIO-HONDAKINIK EZ SORTZEKO PROGRAMA

4. artikulua. Programan parte hartzea.

Nahi duenak parte har dezake Ordenantza honetan aurreikusitako edozein konpostaje modalitatetan.

5. artikulua. Parte-hartzaileak.

Hauek parte hartu ahalko dute:

— Hirian etxebizitzetarako erabilita dagoen eraikin bateko jabea, gozameduna edo errentaria den pertsona fisiko oro, baldin eta eraikin hori bere etxea eta ohiko bizilekua bada.

— Sukaldaritzako jardueren titularrak, izan pertsona fisiko edo juridiko.

Artículo 3. Definiciones.

A los efectos de la presente Ordenanza, se entenderá por:

Compostaje doméstico o autocompostaje: La gestión de la materia orgánica biodegradable generada en una vivienda o actividad de restauración mediante un proceso de compostaje.

Compostaje comunitario: La gestión de la materia orgánica biodegradable generada en más de una vivienda o actividad de restauración y por parte de varias personas en un espacio común mediante un proceso de compostaje.

Biorresiduo: Residuo biodegradable de jardines y parques, residuos alimenticios y de cocina procedentes de hogares, restaurantes, servicios de restauración colectiva y establecimientos de venta al por menor; así como, residuos comparables procedentes de plantas de procesamiento de alimentos.

Estructurante: Biorresiduo seco, habitualmente conseguido en parques y jardines (ramas de poda, hojas secas, paja y restos de plantas) cuya finalidad es aportar carbono al proceso y reducir la humedad.

Residuo: cualquier sustancia u objeto que su poseedor desee o tenga la intención o la obligación de desechar.

Compost: Abono orgánico obtenido a partir del tratamiento biológico aerobio y termófilo de materia orgánica biodegradable recogida separadamente. No se considerará compost el material orgánico obtenido de las plantas de tratamiento mecánico biológico de residuos mezclados, que se denominará material bioestabilizado.

Compostador: Recipiente donde se lleva a cabo el proceso de compostaje. Éste podrá ser con suelo —especialmente indicado para terrazas y suelos duros—, o sin suelo —más apropiado para colocarlo directamente sobre la tierra en jardines—.

Compostaje: Proceso biológico aerobio y termófilo para conseguir compost mediante la descomposición controlada de materia orgánica biodegradable. Las fases del proceso son las siguientes:

— Fase de descomposición: Esta fase se reconoce por la elevada actividad microbiana. Los hongos y bacterias transforman el material acumulado consiguiendo temperaturas muy altas de hasta 70.°C.

— Fase de maduración: Una vez que los microorganismos han descompuesto la materia orgánica, los insectos (escarabajo, lombriz,) la estabilizan y la desmenuzan.

Persona responsable: Es la persona encargada del seguimiento del proceso de compostaje en cada recinto de compostaje comunitario.

CAPÍTULO II

PROGRAMA DE PREVENCIÓN

Artículo 4. Participación en el programa.

La participación en cualquiera de las modalidades de compostaje previstas en esta Ordenanza es voluntaria.

Artículo 5. Sujetos participantes.

Podrán participar en el programa:

— Las personas físicas que sean propietarias, usufructuarias o arrendatarias de una edificación destinada a vivienda en la ciudad, que constituya su domicilio y residencia habitual.

— Las personas, físicas o jurídicas, titulares de las actividades de restauración.

6. artikulua. *Konpostajeko Udal Erregistroan izena ematea.*

1. Bio-hondakinak ez sortzeko udal programan parte hartu nahi duen pertsona fisiko edo juridiko orok alta eman eta inskribatu egin beharko du Konpostajeko Udal Erregistroan. Erregistro horretan izena ematen dutenek bio-hondakinak edukiontzi marroian bereizita biltzeko aukera izango dute, nahi izanez gero.

2. Hiru konpostaje modalitateetako batean bakarrik parte hartzeko emango da izena.

3. Partaideren batek konpostajea egiteari utzi nahi badio, Udalari jakinarazi beharko dio Konpostajeko Erregistroa utzi nahi duela.

III. KAPITULUA

KONPOSTAJEA

7. artikulua. *Konpostaje modalitateak.*

7.1. Ordenantza honetan konpostaje modalitate hauek daude aurreikusita:

- Etxeko konpostajea edo norberaren konpostajea.
- Konpostaje komunitario pribatua.
- Konpostaje komunitarioa publikoa.

7.2. Konpostaje komunitarioa pribatua izango da konpostajerako instalazioa titulartasun pribatuko eremu baten kokatuta badago; titulartasun publikoko eremu batean kokatuta badago, aldiz, publikoa izango da.

8. artikulua. *Etxeko konpostajea.*

8.1. Etxeko konpostajea egiteko materiala (konpostagailua eta aireztagailua) Udalak utziko die, gordailuan, Erregistroan modalitate honetarako izena eman dutenei.

8.2. Etxeko konpostajerako konpostagailuak ondoko etxebizitza eraikinetatik 5 metrora jarri beharko dira, gutxienez, eta konpostaje prozesua egokiro gauzaten dela eta bizilagunei enbarazurik egiten ez diela bermatu beharko da.

8.3. Lorategi edo esparru berde pribatuetan erabiltzeko etxeko konpostagailuek ez dute zorurik; hala, bio-hondakina belar gainean geratzen da, zuzenean. Terrazetan ezartzeko konpostagailuek, berriz, zorua dute, bio-hondakinak terrazako zoria ukitzea saihesteko.

9. artikulua. *Konpostaje komunitario pribatua.*

9.1. Konpostaje komunitarioko esparru bat lurzoru pribatuan jartzeko, sustatzaile gisa jarduten duenak hirigintzako lizentziaren eskaera bat aurkeztu beharko dio Udalari, konpostajerako gunearen kokalekuaren plano batekin batera. Ezaugarriak dagokion Plan Berezia zehaztutakoak izango dira.

9.2. Konpostaje komunitarioa egiteko materiala (konpostagailuak eta aireztagailuak) Udalak utziko die, gordailuan, Erregistroan modalitate honetarako izena eman dutenei.

9.3. Konpostajerako gunen horien mantentze lana erabiltzaileen ardura izango da.

9.4. Konpostajerako esparruak berdeguneetan instalatuko dira; ez dira inolaz ere ipiniko ez espaloietan, ez oinezkoentzako guneeetan, ezta naturaren babesguneetan edo ur bilketako babes perimetroetan ere. Instalazioek gutxienez 10 metrora egon behar dute biziokietatik eta bestelako eremu sentikorretatik, hala nola osasun guneeetatik, uberketatik eta merkataritza guneeetatik.

Artículo 6. *Inscripción en el Registro Municipal de Compostaje.*

1. Las personas, físicas o jurídicas, que deseen participar en el programa municipal de prevención del biorresiduo deberán darse de alta e inscribirse en el Registro Municipal de Compostaje. La inscripción en este Registro será compatible con la participación voluntaria en el depósito separado de biorresiduo a través del contenedor marrón.

2. La inscripción se realizará exclusivamente para una de las tres modalidades de compostaje.

3. Las personas participantes en el programa que no deseen continuar practicando compostaje deberán comunicar al Ayuntamiento la baja voluntaria en el Registro de Compostaje.

CAPÍTULO III

COMPOSTAJE

Artículo 7. *Modalidades de Compostaje.*

7.1. Las modalidades de compostaje previstas en la presente Ordenanza son las siguientes:

- Compostaje doméstico o autocompostaje.
- Compostaje comunitario privado.
- Compostaje comunitario público.

7.2. El compostaje comunitario será privado cuando la instalación de compostaje se ubique en un terreno de titularidad privada y será público cuando se ubique en un terreno de titularidad pública.

Artículo 8. *Compostaje doméstico.*

8.1. El material para hacer compostaje doméstico (compostador y aireador) será cedido en depósito por el Ayuntamiento a las personas inscritas en el Registro para esta concreta modalidad.

8.2. Las compostadoras de compostaje doméstico deberán instalarse a 5 metros de distancia como mínimo de las edificaciones destinadas a vivienda vecinas y se velará que se realice un adecuado proceso de compostaje, de tal forma que no se generen molestias al vecindario.

8.3. Las Compostadoras domésticas que se vayan a emplear en jardines o recintos verdes privados, no cuentan con suelo alguno, de manera que el biorresiduo se deposita directamente sobre la hierba. Las compostadoras que se ubiquen en terrazas cuentan con un suelo que evita el contacto directo del biorresiduo con el terrazo.

Artículo 9. *Compostaje comunitario privado.*

9.1. Para la colocación de un recinto de compostaje comunitario en suelo privado, la persona que actúe como sujeto promotor deberá presentar en el Ayuntamiento una solicitud de licencia urbanística junto con un plano de emplazamiento del futuro recinto de compostaje. Las características serán las especificadas en el Plan Especial correspondiente.

9.2. El material para hacer compostaje comunitario (compostadores y aireadores) será cedido en depósito por el Ayuntamiento a las personas inscritas en el Registro para esta concreta modalidad.

9.3. El mantenimiento de estos puntos de compostaje es responsabilidad de las personas usuarias de los mismos.

9.4. Los recintos de compostaje se instalarán en espacios verdes, nunca en las aceras y en zonas peatonales, zonas de protección de la naturaleza o perímetros de protección de captaciones de agua, debiendo mantener como mínimo 10 metros de distancia a zonas habitadas y otros espacios sensibles, tales como centros de salud, cauces de ríos, zonas comerciales.

9.5. Konpostaje esparruko sarbidea diseinatuta egongo da suhiltzaileak eta erreskate zerbitzuak erraz sartzeko moduan.

9.5. Konpostaje prozesua bizilagunei enbarazurik egin gabe gauzatuko da.

10. artikulua. Konpostaje komunitario publikoa.

10.1. Udalak hiriko zenbait tokitan ipiniko ditu konpostaje komunitario publikorako esparruak, eta Erregistroan modalitate horretarako izena eman duten inguruko bizilagunen eskura jarriko ditu.

10.2. Konpostajerako esparru mota hauek izango dira:

A. Konpostagailuz osatutako konpostaje esparruak: horrelako esparruetan 700 litro inguruko zortzi konpostagailu egongo dira. Gehienez ere, 90 pertsonako taldeentzat izango dira. Gainera, material egituratzailea gordetzeko ontziak eduki beharko dituzte. Neurriak dagokion Plan Berezian zehaztutakoak izango dira.

B. Etxolak: oro har, horrelako guneetan egurrezko etxola bakar bat egongo da, eta 4 m³-ko edukiera izango du gehienez. Gehienez ere, 90 pertsonako taldeentzat izango dira. Tresnak eta egituratzailea etxolan bertan gorde beharko dira. Neurriak dagokion Plan Berezian zehaztutakoak izango dira.

10.3. Konpostagailuak zein etxolak itxita egongo dira, bai menik ez dutenek sartzeko aukerarik izan ez dezaten.

10.4. Konpostaje esparruak berdeguneetan instalatuko dira; inola ere ez espaloietan, oinezkoentzako guneetan, naturaren babesguneetan edo ur bilketako babes perimetroetan. Instalazioek gutxienez 10 metrora egon behar dute eremu bizi-garrietatik eta bestelako eremu sentikorretatik, hala nola osasun guneetatik, ikastetxeetatik, uberketatik, merkataritza guneetatik.

10.6. Konpostajerako esparru horien mantentze lana erabiltzaileen ardura izango da.

10.7. Konpostaje esparru bakoitzak arduradun bat izango du, konpostaje prozesuari jarraipena egingo diona. Arduraduna programako parte hartzaile bat izango da, nahitaez, eta konpostaje esparruaren erabiltzaileek hautatuko dute, euren artean.

Arduradunak eginkizun hauek izango ditu, gutxienez:

- Aldian behin konposta aireztatuko du, eta nahasi.
- Udalari arazo edo gorabeherak jakinaraziko dizkio, esaterako, egituratzailea falta dela.
- Betetzean, giltzak itxiko ditu konpostagailuak edo etxoletako konpartimenduak, umotze fasea gauzatu dadin. Behin prozesua osatuta, ireki egingo ditu, partaideek konposta hartu ahal izateko bahetu ostean, hala badagokio.
- Udalaren eta gainerako partaideen arteko bitartekoa izango da; bitartekotza lanetako bat izango da konposta umotuta dagoela eta laginak hartu behar direla Udalari jakinaraztea.

10.8. Arretaz zainduko dute konpostaje esparruak inguru-nean nabarmen ez gelditzea.

10.9. Konpostaje esparruetakoko sarbidea diseinatuta egongo da suhiltzaileak eta erreskate zerbitzuak erraz sartzeko moduan. Sarrerako bidea garbi egongo da, eta sarbidea eragotz lezakeen inolako oztoporik gabe.

9.5. El acceso al recinto de compostaje estará diseñado para que los bomberos y servicios de rescate puedan intervenir fácilmente.

9.6. El proceso de compostaje se realizará de tal forma que no genere molestias al vecindario.

Artículo 10. Compostaje comunitario público.

10.1. El Ayuntamiento colocará en diversas zonas de la ciudad recintos de compostaje comunitario público y los cederá a disposición de las personas que, residiendo en el entorno, se encuentren inscritas en el Registro para esta concreta modalidad de compostaje.

10.2. Los modelos de recinto de compostaje serán los siguientes:

A. Recintos de compostaje compuestos por compostadores: Este punto estará compuesto por ocho compostadores de aproximadamente 700 litros. Dará servicio a un grupo de hasta 90 personas. Además, deberá tener recipientes para guardar el material estructurante. Las dimensiones serán las especificadas en el Plan Especial correspondiente.

B. Casetas: Este punto estará compuesto, como criterio general, por una única caseta de madera con un volumen máximo de 4 m³. Dará servicio a un grupo de hasta 90 personas. Los utensilios y el estructurante se deberán guardar en la misma caseta. Sus dimensiones serán las especificadas en el Plan Especial correspondiente.

10.3. Tanto los compostadores como las casetas estarán cerradas para evitar que las personas no autorizadas puedan acceder a ellos.

10.4. Los recintos de compostaje se instalarán en espacios verdes, nunca en aceras, zonas peatonales, parques, zonas de protección de la naturaleza o perímetros de protección de captaciones de agua, debiendo mantener como mínimo 10 metros de distancia a zonas habitables y otros espacios sensibles, tales como centros de salud, centros de enseñanza, cauces de ríos, zonas comerciales.

10.6. El mantenimiento de estos recintos de compostaje es responsabilidad de las personas usuarias de los mismos.

10.7. Cada recinto de compostaje contará con una persona responsable, encargada del seguimiento del proceso de compostaje. Esta persona responsable, que será necesariamente una de las participantes en el programa, será elegida por las propias personas usuarias del concreto recinto de compostaje y entre ellas mismas.

La persona responsable deberá realizar, como mínimo, las siguientes tareas:

- Airear periódicamente el compost, mezclándolo.
- Comunicar al Ayuntamiento los problemas o incidencias que se produzcan, tales como la falta de estructurante.
- Cerrar con llave los compostadores o los compartimentos de las casetas cuando se encuentren llenos, para que se lleve a cabo la fase de maduración. Una vez completo este proceso, los abrirá para que los participantes puedan coger compost tras su cribado, si procede.
- Intermediar entre el Ayuntamiento y el resto de participantes; entre los trabajos de intermediación estará el de comunicar al Ayuntamiento cuando el compost ya esté maduro y cuando proceda tomar muestras.

10.8. Se velará para que los puntos de compostaje queden integrados en el entorno.

10.9. El acceso a los recintos de compostaje estará diseñado para que los bomberos y servicios de rescate puedan intervenir fácilmente. El camino de entrada se mantendrá limpio y libre de cualquier objeto que pueda impedir el acceso.

11. artikulua. Materia biltzea.

11.1. Materia organiko biodegradagarria asteko edozein egunetan eta ordutan utzi ahalko da konpostagailuetan.

11.2. Materia organikoa poltsarik gabe utziko da konpostagailuan.

11.3. Programako parte hartzaileek prestakuntza saioetan eta eskura izango duten udal gidaliburuan emandako azalpenen arabera bilduko dute materia organikoa konpostagailuetan.

12. artikulua. Materia konpostagarriak.

Konpostajerako instalazioetan taula honetan ageri diren materialak bakarrik bil daitezke:

Artículo 11. Depósito de la materia.

11.1. La materia orgánica biodegradable podrá depositarse en los compostadores cualquier día de la semana y a cualquier hora.

11.2. La materia orgánica se depositará suelta dentro del compostador y no en bolsas.

11.3. Las personas participantes en el programa depositarán la materia orgánica en los compostadores siguiendo las indicaciones que se ofrezcan en las sesiones de formación y en la guía municipal para compostar que tendrán a su disposición.

Artículo 12. Materias compostables.

Solamente podrán depositarse en las instalaciones de compostaje las materias que figuran en la siguiente tabla:

Papera eta kartoia:	Tintarik gabeko sukaldeko papera (detergentez edo bestelako xaboez zikinduta ez badago)
Sukaldeko eta jatetxeetako hondakin biodegradagarriak:	Barazki eta fruta gordinen hondarrak
	Jaki prestatuen hondarrak eta ogia
	Haragi eta arrain hondarrak
	Arrautzen, itsaskien eta fruitu lehorren oskolak eta fruten hezurak
	Iraungitako jogurtak eta zukuak
Parke eta lorategietako hondakin biodegradagarriak:	Kafe eta infusio hondarrak
	Belarra eta hosto lehorrak
	Inausketako adarrak
	Lorategietako belar hezea eta gainerako landareak

Papel y cartón:	Papel de cocina libre de tinta (sin estar sucio de detergente u otros jabones)
Residuos biodegradables de cocina y restaurantes:	Restos crudos de verduras y frutas
	Restos de comida preparada y pan
	Restos de carne y pescado
	Cáscaras de huevo, marisco, frutos secos y huesos de fruta.
	Yogures y zumos caducados
	Restos de café e infusiones
Residuos biodegradables de parques y jardines:	Hierba y hojas secas
	Ramas de poda
	Hierba húmeda de jardines y restos de plantas

13. artikulua. Materia ez-konpostagarriak.

Taula honetan ageri diren materialak ezingo dira utzi konpostajerako instalazioetan:

Artículo 13. Materias no compostables.

No podrán depositarse en las instalaciones de compostaje las materias que figuran en la siguiente tabla:

Papera eta kartoia:	Egunkariak eta paperak
	Kartoiak
	Sukaldeko paperaren eta komuneko paperaren barruko kartoia
Landare ehunen hondakinak	
Animalien gernua eta irazkinak (lasto ustela barne), eta bereizita bildutako eta sorgunetik kanpo tratatutako efluentek	
Baso hondakinak	
Animalia ehunen hondakinak	
Esnekiak egiteko industrietatik eratorritako hondakinak, kontsumorako egokiak ez direnak	
Okintzako eta gozogintzako produktuak egiteko industrietatik eratorritako hondakinak, kontsumorako egokiak ez direnak	

Papel y cartón:	Periódicos y papeles
	Cartones
	Los tubos de papel de cocina y papel higiénico.
Residuos de tejidos vegetales	
Orina y excrementos de animales (incluida paja podrida) y efluentes recogidos selectivamente y tratados fuera de donde son producidos.	
Residuos forestales	
Residuos de tejidos animales	
Residuos derivados de la industria para hacer productos lácteos y que no son adecuados para el consumo	
Residuos derivados de la industria para productos de panadería y repostería y que no son adecuados para el consumo	

14. artikulua. Egituratzaila.

14.1. Udal parke eta lorategietako hondakin biodegradagarriak (inausketako adarrak eta hosto lehorrak) egituratzaile gisa erabiliko dira konpostaje komunitario publikoko esparruetan.

14.2. Udalak partaideen eskura jarriko du egituratzailea konpostaje komunitario publikoko esparruetan.

14.3. Etxeko konpostajearen edo konpostaje komunitario pribatuaren kasuan, hiriko Garbiguneetan eskuratu ahal izango da materia egituratzailea.

IV. KAPITULUA

KONPOSTAJE PROZESUA

15. artikulua. Prozesuari jarraipena egitea.

15.1. Udalak aldian behingo jarraipena egingo dio programako partaideek gauzatutako konpostaje prozesuari, bai konpostaje komunitario publiko zein pribatuaren kasuan, bai etxeko konpostajearen kasuan.

Jarraipen horretan, konpostaren kalitate fisikoa, kimikoa eta biologikoa aztertu eta kontrolatuko du, konpost egonkorra eta higienizatua lortu dela eta hura erabiltzeak bizilagunen osasunari edo ingurumenari kalterik egiten ez diola bermatzeko.

15.2. Gutxieneko parametro hauek neurtu edo aztertuko dira aldian behin:

- Temperatura.
- Hezetasuna.
- Material lehorraren eta material hezearen proportzioa.
- Aireztapen aldizkakotasuna.

16. artikulua. Kalitate parametroak.

16.1. Konpostaje esparruetan lortutako konpostak ongarrizko produktuei buruzko araudian ezarritakoa bete beharko du, hau da, ezarritako parametro fisiko eta kimikoak beteko ditu, eta ez ditu gaundituko indarreko araudian jasota dauden mikroorganismoen eta metal astunen gehieneko mugak.

16.2. Lortutako konpostak ez baditu betetzen gutxieneko parametroak, hondakin gisa tratatuko da. Halakoetan, Udala arduratuko da bio-hondakin hori behar bezala kudeatzeaz, nahiz eta programako parte hartzaileen erantzukizuna izango den bio-hondakina dagokion edukiontzian edo Udalak adierazitako moduan uztea.

17. artikulua. Konposta.

17.1. Konpostaje esparruetan lortutako konposta ezingo da erabili merkaturatzeko produktuen ongarri gisa.

Artículo 14. Estructurante.

14.1. Los residuos biodegradables de parques y jardines municipales (ramas de poda y hojas secas) se usarán como estructurante en el proceso de los puntos de compostaje comunitario público.

14.2. El Ayuntamiento pondrá a disposición de los sujetos participantes el estructurante en los puntos de compostaje comunitario público.

14.3. En el caso del compostaje doméstico o punto de compostaje comunitario privado se podrá disponer de materia estructurante en los Garbigunes de la ciudad.

CAPÍTULO IV

PROCESO DE COMPOSTAJE

Artículo 15. Seguimiento del proceso.

15.1. El Ayuntamiento realizará el seguimiento periódico del proceso de compostaje llevado a cabo por las personas participantes en el programa, tanto si se trata de participación en puntos de compostaje comunitario público o privado como compostaje doméstico.

Este seguimiento consistirá en controlar y conocer la calidad física, química y biológica del compost para garantizar que se obtiene un compost estable e higienizado, de manera que su uso no sea perjudicial para la salud de las personas ni para el medio ambiente.

15.2. Los parámetros mínimos que se medirán o examinarán periódicamente son los siguientes:

- Temperatura.
- Humedad.
- Proporción de material seco/material húmedo.
- Periodicidad de aireación.

Artículo 16. Parámetros de calidad.

16.1. El compost obtenido en los recintos de compostaje deberá cumplir lo establecido en la normativa sobre productos fertilizantes, es decir, cumplirá los parámetros físico-químicos establecidos y no superará límites máximos de microorganismos y metales pesados recogidos en la normativa vigente.

16.2. Cuando el compost obtenido no cumpla los parámetros mínimos establecidos se tratará como residuo. En este caso, el Ayuntamiento será la entidad responsable de gestionar adecuadamente este biorresiduo, aunque será responsabilidad de las personas participantes en el programa depositar el biorresiduo en el contenedor correspondiente o en la forma que el Ayuntamiento lo indique.

Artículo 17. Compost.

17.1. El compost obtenido en los recintos de compostaje no podrá utilizarse como abono de productos que vayan a ser comercializados.

17.2. Konpostaje komunitarioko esparruetan lortutako konposta gune horien erabiltzaileek erabiliko dute.

18. artikulua. *Konpostaje komunitario publikoko prozesu bete beharreko baldintzak eta hartu beharreko neurriak.*

18.1. Programako partaideek konpostagailuetako batean edo etxolako konpartimenduetako batean bilduko dute materia organikoa. Hori erabat betetzean, arduradunak giltzaz itxiko du, umotze fasea hasteko. Une horretan, beste prozesu bati ekingo diote, eta materia organikoa beste konpostagailu batean edo etxolako beste konpartimendu batean biltzen hasiko dira.

18.2. Prozesuan beharrezkoa izanez gero, partaideek konpostagailu batetik bestera edo konpartimendu batetik bestera irauli beharko dute materiala.

18.3. Umotze fasea amaitzean, konposta bahetu egingo da, behar izanez gero, eta erabiltzeko prest egongo da. Baina, erabili aurretik, kalitate kontrola egin behar bada, arduraduna harremanetan jarriko da Udalarekin, beharrezko laginak jaso ditzan eta kontrol laborategi batera eraman ditzan. Behin azterketa eginda eta konpostaren kalitatea ezagututa, arduradunak konpostagailua edo etxola irekiko du, eta partaideek konposta bahetuko dute, kalitate hobeko materiala lortzeko.

18.4. Prozesua bizilagunei enbarazurik egin gabe eta ingurumenean eragin gabe gauzatu beharko da, eta horretarako bermatu egin beharko da konpostajea baldintza egokietan egin dela. Baldintza horien artean oso garrantzitsua da prozesuan kondizio aerobioak mantentzen direla bermatzea. Baldintza horiek betetzeko, partaideek prestakuntza saioretan eta eskura izango duten udal gidaliburuan eskainitako argibideen arabera gauzatu dute prozesua; arduradunak nahastuko du konposta, eta jarraipena egingo dio prozesuari; horrez gainera, Udalak prozesurako beharrezkoak diren baliabideak eta tresnak eskaini, eta jarraipen lanak egingo ditu.

V. KAPITULUA

ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

19. artikulua. *Programako partaideen eskubideak.*

Bio-hondakinak ez sortzeko programako partaideek eta, hortaz, Konpostajeko Udal Erregistroan izena emana dutenek, hauetarako eskubidea izango dute:

– Udalak konpostajeari buruz prestatutako gidaliburu bat jasotzekoa.

– Udalaren eskutik konpostajea egiteko materiala (konpostagailua eta aireztagailua) gordailuan jasotzekoa, etxeko konpostajearen kasuan.

– Udalaren eskutik konpostajea egiteko materiala (konpostagailua eta aireztagailua) gordailuan jasotzekoa, konpostaje komunitario pribatuaren kasuan.

– Udalak eskainitako laguntza teknikoko zerbitzua erabiltzekoa, prestakuntza jasotzeko.

– Lortutako konposta erabiltzekoa.

– Udalak programan parte hartzeagatik ezarriko dituen neurri ekonomiko, finantzario eta fiskalei etekina ateratzeko.

20. artikulua. *Programako partaideen betebeharrak.*

Konpostajeko Udal Erregistroan izena emana dutenek betebeharrak hauek dituzte:

17.2. El compost obtenido de los recintos de compostaje comunitario será utilizado por las propias personas usuarias de estos puntos.

Artículo 18. Condiciones y medidas a adoptar en el proceso de compostaje comunitario público.

18.1. Las personas participantes en el programa comenzarán aportando materia orgánica en uno de los compostadores o en un compartimento de la caseta. En el momento en que éstos se llenen por completo, la persona responsable se encargará de cerrarlos con llave para que pueda comenzar la fase de maduración. En este momento, las personas participantes comenzarán un nuevo proceso aportando materia orgánica en otro compostador o en otro compartimento de la caseta.

18.2. Cuando el proceso así lo requiera las personas participantes deberán realizar el volteo de material de un compostador a otro o de una celda de la caseta a otra.

18.3. Al finalizar la fase de maduración, el compost estará listo para ser utilizado tras realizar el cribado en caso de que sea necesario, pero antes, cuando proceda realizar el control de calidad, la persona responsable se pondrá en contacto con el Ayuntamiento para que éste recoja las muestras necesarias y las traslade a un laboratorio de control. Una vez realizado el análisis y conocida la calidad del compost, la persona responsable abrirá el compostador o la caseta y las personas participantes tamizarán el compost para conseguir un material de mejor calidad.

18.4. El proceso se deberá llevar a cabo sin generar molestias a las personas ni impactos sobre el medio ambiente, siendo para ello necesario garantizar que el compostaje se realice en las condiciones adecuadas, destacando entre ellas la importancia de asegurar el mantenimiento de las condiciones aerobias durante todo el proceso. Para cumplir estas condiciones, las personas participantes llevarán a cabo el proceso siguiendo las indicaciones ofrecidas en las sesiones de formación y en la guía municipal para compostar que tendrán a su disposición; la persona responsable realizará la mezcla del compost y el seguimiento del proceso y además, el Ayuntamiento pondrá a disposición del proceso los recursos, utensilios y tareas de seguimiento necesarias.

CAPÍTULO V

DERECHOS Y OBLIGACIONES

Artículo 19. Derechos de las personas participantes en el programa.

Las personas participantes en el programa de prevención del biorresiduo y, por lo tanto, inscritas en el Registro Municipal de Compostaje tendrán derecho a:

– Obtener una guía o manual práctico de compostaje facilitado por el Ayuntamiento.

– Recibir del Ayuntamiento, en depósito, el material para hacer compostaje (compostador y aireador), en caso de compostaje doméstico.

– Recibir del Ayuntamiento, en depósito, el material para hacer compostaje (compostador y aireador), en caso de compostaje comunitario privado.

– Utilizar el servicio de asistencia técnica, para la formación en la materia, ofrecido por el Ayuntamiento.

– Aprovechar y utilizar el compost obtenido.

– Beneficiarse de las medidas económicas, financieras y fiscales que el Ayuntamiento acuerde establecer por la participación en el programa.

Artículo 20. Obligaciones de las personas participantes en el programa.

Las personas inscritas en el Registro Municipal de Compostaje están obligadas a:

– Udalak konpostajearen gainean antolatu edo eskainiko dituen prestakuntza saioetara joatea.

– Konpostajerako instalazioak behar bezala erabiltzea, adierazitako jarraibideen arabera.

– Konpostaje prozesua emandako jarraibideen arabera egi-
tea.

– Udalari ikuskatze lanetan laguntzea, hark izendatutako langileei konpostajerako instalazioetan sartzen utzita.

21. artikulua. Betebeharrak ez betetzeagatiko ondorioak.

21.1. Programako partaideek aipatutako betebeharrak horietakoren bat betetzen ez badute, nahitaez emango zaie baja Konpostajeko Udal Erregistroan, alde aurretik dagokion alde biko espedientea izapidetuta.

21.2. Halaber, betebeharren bat betetzen ez duenari kendu egingo zaio konpostajerako utzitako materiala, edo/eta itzuli egin beharko du, eta gauza bera gertatuko zaio programan parte hartzeagatik izan dituen laguntza ekonomiko edo onura fiskalen kasuan.

21.3. Konpostaje komunitario pribatuaren kasuan, konpostaje gune bereko erabiltzaile guztiei emango zaie baja Erregistroan eta guztiek itzuli beharko dute materiala. Ondorio ekonomikoak betebeharrak bete ez dituen erabiltzaileari bakarrik ezarriko zaizkio, baldin eta erabiltzaile hori identifikatzeko aukerarik izan bada.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ordenantza hau indarrean sartuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean.

– Asistir a las sesiones de formación en compostaje organizadas o impartidas por el Ayuntamiento.

– Realizar un uso adecuado de las instalaciones de compostaje, siguiendo las instrucciones de uso que se les indiquen.

– Realizar el proceso de compostaje conforme a las instrucciones que se dicten.

– Colaborar con la labor inspectora del Ayuntamiento, permitiendo al personal designado por éste el acceso a las instalaciones de compostaje.

Artículo 21. Consecuencias del incumplimiento de las obligaciones.

21.1. El incumplimiento de alguna de las obligaciones precedentes por parte de las personas participantes en el programa conllevará, previa la tramitación del correspondiente expediente contradictorio, la baja forzosa en el Registro Municipal de Compostaje.

21.2. Este incumplimiento comportará, asimismo, la pérdida y/o la obligación de restituir el material cedido para el compostaje, así como las ayudas económicas o beneficios fiscales de los que la persona incumplidora se haya podido favorecer.

21.3. En el caso incumplimientos producidos en el marco del compostaje comunitario privado, las consecuencias de la baja forzosa en el Registro y de la obligación de restituir el material afectarán a todas las personas participantes en el programa y usuarias del mismo punto de compostaje. Las consecuencias de tipo económico, sin embargo, solamente afectarán a la persona incumplidora, siempre que ésta haya podido ser identificada.

DISPOSICION FINAL UNICA

La presente Ordenanza entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.